



# ALTERNATIBEN HERRIA

**BILBO**

**URRIAK 24 DE OCTUBRE**  
LARUNBATA ★ ★ SÁBADO ★ ★ 2015

**BIZITZA BURUJABEA**  
★ ★ **ESKUBIDE OSOZ** ★ ★

**VIDA SOBERANA DE PLENO DERECHO**

**#ALTERNATIBENHERRIA**

<http://alternatibenherria.eus>

[@ kontaktua@alternatibenherria.eus](mailto:kontaktua@alternatibenherria.eus)

[@alterherria](https://twitter.com/alterherria)

[Alternatiben-Herria](https://www.facebook.com/Alternatiben-Herria)



carta de los  
derechos sociales **euskal herriko**  
**eskubide sozialen** *Karta*

## Prentsa-dossierra

2015-10-13

## **AURKIBIDEA**

|                                        |    |
|----------------------------------------|----|
| Zer da Alternatiben Herria? .....      | 5  |
| Aurrekariak.....                       | 6  |
| Orain arteko bidea.....                | 8  |
| Zein izango da eguneko eskaintza?..... | 11 |
| Harremanetarako.....                   | 16 |
| ERANSKINA.....                         | 17 |

## Zer da Alternatiben Herria?

Alternatibak dituen herria bizirik dago. Horixe irudikatzeko asmoz, [Euskal Herriko Eskubide Sozialen Karta](#)ren asanbladak datorren 2015eko urriaren 24an "[Alternatiben Herria](#)" ekimena abiatuko du Bilbon. Aldarrikapen, hausnarketa eta ospakizun eguna izango da, egunerokoan bizia ematen diguten hamaika proposamen handi eta txikiren erakusleihoa; elkarren arteko topagunea.

Ekimen honekin jarraipena emango diogu [Bizi mugimenduak](#), 2015eko abenduan Parisen klima aldatetari buruzko Goi Bilera dela eta (COP21), Alternatiben Herriak antolatzekeo egindako deialdiari, "sistema aldatu, ez klima" lelopean.

Deialdi berri honetan, klimaren inguruko proposamenari beste batzuk gehitu nahi izan dizkiogu. Hala, badakigu Euskal Herrian eremu sozial, ekonomiko eta kulturalean badirela hamaika pertsona eta eragile egunez-egun alternatibak eraikitzen. Horregatik, urriaren 24an guzti hauek bildu eta plazara atera nahi ditugu. Balio justuagoetan oinarritutako gizartea eraiki daitekeela sinetsita gaude eta proiektu hauek guztiak, aldaketa horren hazia direla erakutsi nahi dugu.

Horregatik, dei hau egiten dugunok alternatibak ditugula eta jada martxan daudela erakutsi nahi dugu, eta honekin batera esan, sistema dela aldatu behar dena. Horregatik pertsonen beharrak erdigunean jartzen dituen eredu sozial berria aldarrikatzera gatoz:

**Ongi bizitzeko,  
pertsonen zein herrien premiak asetzeko,  
gure buruak eta planeta zaintzeko  
eta nagusi den sistema aldatzeko.**

## Aurrekariak

Ekimenak [Euskal Herriko Eskubide Sozialen Karta](#)ren prozesuan dauka jatorria. Prozesu honek azken krisiari erantzuteko 2009tik aurrera euskal gehiengo sindikalak (ELA, LAB, ESK, STEE/EILAS, EHNE eta HIRU) hasieran eta **Sindikatu eta Gizarte Eragileen Guneak** ondoren garatutako erantzun zikloaren ondorenari erantzuten dio. Egoera erantzuteko greba orokorren zikloaren ondoren fase propositiboari hasiera eman zitzaion. Kritikatik alternatibaren eraikuntza edo saretzera pasatu ginen.



Eragile sozial eta sindikalek parte hartu zuten prozesua 2013ko apiriletik 2014ko maiatzera arte luzatu zen. [126 herri, auzo eta eskualdetan](#) eraman zen aurrera. [145 eragilek](#) hartu zuten parte prozesuan eta ehunka ekarpen egon ziren.

Onartutako [dokumentua](#) ekainaren 14an aurkeztu zen jendaurrean.



2014ko urrian Eibarren egin zuen asanbladan erabaki zuen bere **kurtsorako egitasmoa eta antolaketa-eredua**. Koordinazio nazionala sortzea erabaki zen bertan.



Azaroan egindako agerraldian bere urterako egitasmoak jakinarazi zituen. Martxoaren 14ko mobilizazioak eta urriaren 24an Bilbon egingo den Alternatiba ("Alternatiben herria" izena beranduago erabaki zen), besteak beste.

Urtarrilaren 20ean [Programa soziala](#) aurkeztu zen, interpelazio instituzionalerako tresna.



Martxoaren 14an manifestazioak egin zituen Eskubide Sozialen Kartak Bilbo eta Iruñean, "**Aldaketa soziala orain, itenemos alternativas!**" lelopean.

## Orain arteko bidea

Martxoaren 31an, **asanbladan** elkartuta, Alternatiben herriari begirako lana hasi zuten eragileek. Harrezkero, eragileen hiru asanblada egin dira, apirilaren 23an bigarrena, uztailaren 2an hirugarrena eta irailaren 17an laugarrena.



Ekainaren 10ean lehen jendaurreko **aurkezpena** egin zen, ekimena egingo den lekuan bertan, Bilboko itsasadarraren ertzean.



Honetaz aparte, lehen bitartekoak martxan jarri ziren (**bloga**, **kartelak** eta **esku-orriak**).

Ekimenaren inguruan **manifestu** bat sareratu genuen **[alternatibenherria.eus](http://alternatibenherria.eus)** blogean. Honezkero, **1.001 norbanako eta 111 eragilek sinatu dute.**

Egitasmoa **Lantalde desberdinak** sortu dira, lanak aurrera eramateko. Filosofiari dagokionez, horizontalitatea bilatu da.

- Talde-motorea
  - o Barne-komunikazioa

- Auzoen koordinazioa
- Kanpo-komunikazioa
- Azpiegitura
- Diruzaintza

Hasiera batean, eragile anitzekin egindako asanbladetan, arlo bakoitzean martxan dauden alternatibak ezagutaraztea planteatu zen. Honakoak izan ziren definitutako guneak (herriaren “**auzoak**”) eta gune bakoitzeko eduki nagusiak:

- **Natura** (energia burujabetza, klima-aldaketa, hondakinak, mugikortasuna, elikadura-burujabetza, kontsumoa...)
- **Eredu ekonomikoa** (finantzak, txanpona, ekonomia sozial eraldatzailea, aberastasunaren banaketa, enplegua...).
- **Demokrazia, parte-hartzea eta burujabetza** (eredu ekonomiko, soziala, kulturala eta politikoa erabakitzeko eskubidea, parte-hartze soziopolitikoa, parte-hartze prozesuak, herrien arteko elkartasuna...).
- **Bizitzaren iraunkortasuna** (zaintza, harremanak, gorputzak...).
- **Aniztasuna** (jatorria, identitatea, sexua, funtzioanaltatearen inguruko aniztasunaren kudeaketa...).
- **Ondare komuna** (hizkuntza, hezkuntza, kultura...)

“Auzo” hauean orotariko eragileak bildu eta euren artean koordinatu dira eta hasieran proposatu ziren oinarritzko lerroak birformulatu egin dira. Horrela, bizitzaren iraunkortasunaren ingurukoa zehar-lerro izatera pasatu da eta beste auzoetan egin du bere ekarpena.

Eztabaida eta talde lanaren ondorioz, hauek izango dira urriaren 24an Bilboko Alternatiben Herrian egongo diren auzoak:


- **Arragoa:** auzo honetan, hizkuntza, hezkuntza eta kulturaren inguruko eztabaidak, azoka eta ekitaldiak egingo dira egunean zehar.
- **Gure Gaia:** naturarekin zerikusia izango duten tailerrak, eztabaidak eta azoka bilduko dituen gunea izango da.
- **AuzoEKOnomia:** Ekonomia sozial eta eraldatzailearen inguruan saretutako eragileek eztabaidak eta azoka egingo duten auzoa izango da.
- **Demokrazia, Parte-Hartzea eta Burujabetza:** Herrien eskubideen inguruan eta parte hartze demokratikoaren inguruan hausnarketa eta proposamen gunea izango da.
- **Bizitza Duinak eta Anitzak:** Gorputz eta bizi eredu ez normatiboen esperientziak jaso eta zabalduko dituen aniztasunaren auzoa izango da.

**Osotara, 145 eragile** izan dira prestaketa-bileretan eta egitarauan parte hartu

dutenak, orain arte (zerrenda behin-behinekoa).

Horrekin batera, jendearen ekarpena eskatu dugu, batez ere, ekonomikoa eta lanari dagokiona.

Horretarako, **Crowdfundinga** martxan jarri dugu goteo plataforman 13.049 euro jaso ditugu honezkero, sare sozialetan egindako #alterherria kanpainaren bidez.



Guztira, 291 finantziakide ditugu. Ekarpen ekonomikoa egiten ari direnen artean, eragile zein norbanakoak aurki ditzakegu.

## Zein izango da eguneko eskaintza?

Bilboko Areatza eta Alde Zaharraren inguruan egingo da Alternatiben Herria. Jarduera batzuk kalean bertan garatuko dira, karpak kokatuko dira horretarako. Bestalde, lokal publikoak eta herri-mugimenduarenak ere erabiliko dira.



**Formatu ezberdineko ekintzak** egongo dira, hala nola,

- doku-zine-forumak,
- hitzaldi eta mahai-inguruak,
- ikusi eta ikasi, hezi eta hazi (esperientzien kontakizun komunak)
- entzun, eman eta parte hartu (tailerrak)
- azokak
- performanceak, musika, animazioa eta ekimen ludikoak
- jana eta edana

Alternatiben Herrian, **hizkuntza-irizpideak, kontratazio eta kontsumorako irizpideak eta egitarauan parte hartu dutenekiko genero-irizpideak** erabiltzen ari gara.

Jarraian duzue egitarauaren lehen laburpen bat:

# BEHIN-BEHINEKO

# EGITARAUA

**Egitaraua dinamikoa** izango da. Aldaketak eta konfirmazioak **etengabeak** izango dira, blogean aurkituko dituzu eguneratuta. Parte hartzen duten eragileak jasotzen dira zerrendan, ez pertsonak.

## > DOKU-ZINE-FORUMAK

Corputz anitzak eta sexualitatea. **“Alianzas tullido transfeministas a través de la sexualidad y la postpornografía: pornotopedia y nexos”**. Post Opkolektiboa

**“Bide berriak”**. Utopia errealtate bihurtzen den Euskal Herriko esperientzietatik egindako ibilbidea. Elikadura burujabetzaranzko bide berriak. EHNEBizkaia eta Bizilur.

**“Arrakala”**. Zer da heteroaraua? Nola egituratzen da bizi garen jendartean? Nola eragiten digu gure bizitzetan eta harremanetan? Heteroarautik kanpo dauden esperientzia eta bizipenak ezagutzea da asmoa, martxan dauden bizimoduen alternatibak. Topatu gazte proiektu komunikatiboa eta Bilgune Feminista.

**“Ekoinemaldia”**.

**“Sukaldetik plazara. Ipar euskal herriko emazteen askapen mugimenduaren historia”**. Ipar Euskal herriko emazteen askapen mugimenduaren inguruko ikus entzunezkoa. Emagin eta Bilgune Feministak Euskal Herriko mugimendu feministaren historia batzen duen Gure Genealogia feministak proiektuaren jarraipena da. Dokumental ostean solasaldia egongo da.

**“Dantzari: Logros feministas por el derecho a decidir”** Emakumeon eskubideen aurka doazen erreformaren aldaketa proposamenak kritikatzearekin batera, Euskal Herrian aborto eskubidearen aldeko borroka eta garaipen feministen ahotsak batzen dituen dokumentala. Dokumental ostean solasaldia egongo da.

**“TTIP 2035: Odisea para las mujeres”**. TTIPak gizon eta emakumeen artean eragingo dituen ezberdintasunen areagotzearen inguruko umorez betetako dokumentala.

## > HITZALDI ETA MAHAI-INGURUAK

**“La Europa social y de los pueblos ante la amenaza de los tratados internacionales”**. Multinazionalen eta merkataritza-itunen Europaren alternatiba, herrien Europa soziala da.

**“Eraldaketa soziala euskaratik izango da ala ez al da izango?”**

**“Herrialdeei begirada bat, burujabetza sozialerantz”** Herri subirautza aldaketa sozialerako bermea da eta, aldaketa soziala herri subirautzaren bermea da. Eskozian, Katalunian eta Euskal Herrian egiten ari gara.

**“¿Cuál es la alternativa al capitalismo heteropatriarcal?”**

**“¿Empleo y/o trabajo productivo/reproductivo?”**

**“Ekintzailetasun sozialean murgilduz”**

**“Aldaketa klimatikoa. Trantsizio energetikoak eta alternatibak”**

**“Kultur sorkuntzak gaur egungo gizartea aldatzeko balio du?”** Galderatik abiatuta kulturako eragile ezberdinen inguruko hausnarketa. Mahai ingurua eta world kafea.

**“Hemen lan eta bizi. Berton erabaki”**. ELAeta LAB.

**“Kartzelak eta presoak”**. Kartzelak instituzio gisa zer dira? Ze helburu betetzen dute? Zergaitik? Hiru une eta gogoeta eremu bilduko dituen mahainguru jendetsua: Kartzelara sartu aurretik, kartzela

bizitzeko era eta kartzelatik irten osteko esperientziak, genero, klase eta jatorriaren arabera aztertuz.

**“De las máquinas electorales a los cuerpos inteligentes (re)productivos”.** Flocksociety

**“Euskal Herria burujabetzaz janzten”:** independentistak, EH11 kolore, Eleak, Bilgune feminista, ekologistak Martxan.

**“Elikadura subirautza Euskal Herrian”.** EHNEBzkaia, Bizilur, Etxalde, arrantza

**“Por una auditoría de la deuda”.**

## **> IKUSI ETA IKASI. HEZI ETA HAZI. ESPERIENTZIEN KONTAKIZUN KOMUNAK**

5 gai multzoren inguruan, 15 hizlaritik gora eta 30 esperientziatik gora.

**“Autogestioa eta alternatiben eraikuntzan zaintzekoak”.** Errekaleor, Eraldia, Arterra Bizimodua, Ortuondo, Joxemi Zumalabe Fundazioa.

**Gure Gaia 15 x 15.** 15 minututako 15 bizipen.

- **“Por otro modelo de ciudad: movilidad sostenible”**
- **“No todo el monte es orégano, ni bosque. Alternativas a la gestión forestal actual”**
- **“Autoconsumo y democracia energética”**
- **“AHTren aurreko desobedientzia”**
- **“Ur publikoaren aldeko borroka Urdaibain”**
- **“Hondakinak. Zero zabor”**
- **“Eskola jantoki ereduak”**
- **“Kontsumo arduratsua. Nekasare”**
- **“Erleak, problemática de las abejas”**
- **“Eredu agroekologikoak. Urduñako trantsizio agroekologikoa”**
- **“Itsasoa, Ondarroako ituna”**
- **“Emakumeak lehen sektorean: Lekitto eta bermioko sareinak”.**
- **“Decrecimiento y buen vivir”**

**“Harreman anitzak”.** Mikro esperientzien bidez bizitza eredu normatibo edo ofizialak desafiatzen dituzten bestelako ereduak testigantzen jasoketa. Inposatutako bizitza, harreman, zaintza edota sexuaz gozatzeko ereduari bizkarra eman eta bizitza bizitzeko beste modurik badagoela ikusiko dugu eguneroko praktikei helduz. Horretarako adin, jatorri eta errealitate desberdinetako pertsonen hitz eta praktikak mahaigaineratuko ditugu.

**“Propuestas de vivienda colectiva y colaborativa”.** Etxekoop, egunsentia autora eta ikerlari bat.

## **> ENTZUN, EMAN ETA PARTE HARTU Tailerrak**

**Viruta.** Kontzertua eta tailerra. Kantautorea, transexuala eta prekario baten eskutik musika transfeminista, errebeldea eta maitasun erromantikoaren mitoen suntsiketaren tailerra abestien bidez. Jolasean, umorean eta denon parte hartzearekin.

**“Hezkuntza esperientzien trukaketa”.** Martxan diren hainbat egitasmoren zabalpena

- **“Ikasle euskaldunak sortzen”.** Dima eta Egiako esperientziak eta Ondarroako hezkidetza proiektua.
- **“Landa eremuko eskolak txikitasunean handi”**
- **“Baigorriko hezkuntza proiektua”**
- **“Herri unibertsitateak”**

- **“Orioko herri-curriculuma”**
- **“Oinherria”**
- **“Nafarroako 0-3”**
- **“Kanpo espazioen antolaketa”** (erakusketa)

**“Troyako zaldia tailerra. Denon artean egin dezagun”.**

**“Plastikorik gabe bizitzea”.** Sin plástico.

**“Trantsizio energetikoa”.** Taller de transición energética en EH

**“Faktura elektrikoa”.** Ekologistak Martxan

**“Zor ekologikoa”.** Ekologistak Martxan

**“Bertoko zuhaitzen hazitegia montatzeko irizpideak”.** Baso Ahaztuak

**“Bioeraikuntzari buruzko tailerra”.** UK Natura

**“Azukreari buruzko tailerra”.** VSF

**“Hiriko baratze-urbanoen tailerra”**

**“Konposta egiteko tailerra”.** Larrabetzuko konposta.

**“Landare aromatikoen tailerra zentzuen bidez”.** Bizilore

**“Resistentzia tailerra”.** AHT

**“Herrien arteko elkartasuna”.**

**“Sakanako esperientzia”.** Sakanako Mankomunitatea. Eskualdeko garapen integralaren esperientzia.

## **> AZOKAK**

### **Elikadura burujabetza**

**Ingurumena.** Fracking ez, Butroi Bizirik trantsizioan, AHT gelditu!, Mugitu Mugimendua, Deshazkundera, Ekologistak Martxan, Baso ahaztuak, Bizi, Goiener, Galdakako boluntarioak, Larrabetzuko konposta, Larrabetzuko eskolako jantokia, Lur Denok, Lekuko hartu, Bizilore, Baratze talde, Etxezar Bioeraikuntza, UK Natura, Bioeraikuntzaren lagunak, Ekian, Herrien bidezko elikadura (VSF), IparLore, Ibiltari, Sumendi, Greenpeace, Biziz bizi, Som Energia-energia gara, Sinplástico, Taller de Transición Energética en EH, Reciclanet.

Eta gainera 10 minuturo pirula informatiboak egun osoan zehar.

### **AuzoEKOnomia**

**Arragoa.** DDT banaketak, La Gallina Vasca, Kaleko Elkartasun eta Kultur Elkartea, Gure Kabuz ala hil proiektua, Batura ekimena. Sorkuntza, hezkuntza eta hizkuntza eremuko egitasmoak trukatu eta material didaktikoa eskuratzeko azoka. 13tan eta 16tan zure esperientzia partekatzeko aukera zabalik. Mikrofono irekia.

### **Garagardo azoka.**

## > PERFORMANCEAK, MUSIKA, ANIMAZIOA ETA EKIMEN LUDIKOAK

“**Las Caprichosas**”.

“**Umeak herria eraikitzen**”. Eskultura, pintura eta musika uztartuko duen tailer irisgarria. Helduek zein umeek parte hartu ahal izango dute. Umeen eskuek imajinatzen duten herri edo auzoak eraikiko dituzte.

“**Arte eszeniko eta plastikoen ikuskizuna eta tailerra**”. Arte eszeniko eta plastikoen uztartzea, herritarrekin. Guztiok ditugun gaitasun ezaberdinak azaleratzea, inklusibotasunez. Dantza integratuko tailerra eta mural eraikuntza. Artaka Kultur Elkarte.

“**Mintza poteo-kulturala**”. Bertsolaria, monologoa, antzerkia eta gazte musika talde batekin, Bilboko Berbalaguneko kideekin batera.

“**Finanzas éticas y desigualdades de género**”. Bank-bang antzerki taldea.

“**Txiflando sostenible**”.

“**Kankaneo kale-antzerkia**”. Ikuskizun dinamiko, dibertigarri eta zirikatzailea non ikusleek agintzen duten. Kanka eta Neo antzezleek gaitasun-antzespen guztiak martxan jarri eta agerikoa dena zein ez dena hankaz gora jartzen dute, ikusleei eta egoerei egokituz.

“**Bizikleta martxak, helduak, umeak eta aniztasun funtzionala**”.

“**Kaxianoren alabak**”. Erromeria feminista

“**Puro luego**”. Musika taldea

## > ETA GAINERA

“**Haurren asanblada**”. Hurrek ere edozein gairen inguruan iritzia eman dezakete aukera eman eta espazioak eskaintzen badizkiegu. Haurren asanblada haurren parte hartzea sustatzeko tresna izango da. Urtxintxa eta Oinherria.

“**Hiria kolektibotasunetik arakatzen**”: “Hiria, bizitza eta kapitalaren arteko talkarako eremua? “ ibilaldi kritikoa arkitekto aktibisten eskutik.

“**Ibaitik barna, burdinezko itsasadarra**”. Itsasontziz egindako txangoa Bilboko itsasadarrean zehar: hirigintzari begirada kritikoa, memoria historikoa.

“**Amaiera jaialdia**”: Ekitaldia, erromeria Kaxianoren Alabak eta sorpresak!

“**Pribatizazioaren kontrako eta sistema finantzare publiko baten aldeko plataformaren TXISTUKADA**”

Erakusketak (biolentzia matxistaren kontrako kartelak...).

Kale animazioa

Jana eta edana

Dantza

## Harremanetarako

Sei pertsonetz osatutako bozeramailetza dugu, eragile ezberdinetakoak eta egunaren antolaketan parte hartzen dutenak.

Ekimenaren inguruko elkarrizketak, erreportaiak, artikulak edota oharbideak nahi izatekotan honako bi pertsonekin jarri harremanetan:

Aritz Zubiate: **618 362 271**

Gorka Quevedo: **688 696 493**

Komunikazio orokorrerako helbidea honakoa izango da:

**[kontaktua@alternatibenherria.org](mailto:kontaktua@alternatibenherria.org)**



## ERANSKINA

Ondoren atxekitzen dizuegu Alternatiben Herrian nodu batera edo bestera parte hartu duten eragileen zerrenda (117):

Abortatzeko Eskubidearen  
aldeko Bizkaiko plataforma  
ADSIS  
AHT gelditu elkarlana  
ARGIA  
ARRIKOOP koop.elk.txikia  
Arterra  
Artezi Koop Elk Txikia  
Askapena  
Asociacion Kidenda  
Astra  
ATTAC  
Aukera Barriak  
Aukeran Psicología  
Baladre  
Banaiz Bagara  
Bancos del Tiempo  
Baratze Taldea  
Baso ahaztuak  
Batura ekimena  
Bilboko Auzo Elkarte  
Koordinadora (Bilbi, Sanfran...)  
Bilboko Sare Lesbianista  
Bilgune Feminista  
Bioeraikuntzaren lagunak  
Bizi Iparralde  
Bizilore  
Bizilur  
Biziz bizi  
BIZKAIKO AUZO BARATZAK  
Brujas y Diversas  
Butroi Bizirik Trantsizioan  
CNT  
Coke Ez  
Coordinadora de ONGD de  
Euskadi  
DDT Banaketak  
Desazkundera  
Dimako herri eskola  
Economistas SF

Economistas sin Fronteras  
Ecuador Etxea  
Egiako ikastola  
EHGAM  
EHIGE  
EHko Emakumeen Mundu  
Martxa  
EHNE Bizkaia  
EKA  
EKHI Txanpona  
Ekian  
Ekoizan  
Ekologistak Martxan  
EKT  
ELA  
EMAUS BILBAO SCIS  
Emaús Fundación Social  
Emun  
Eraldia  
Ernai  
Errekaleor  
Eskuaire  
ESNETIK, KOOPERATIBA  
ELKARTEA  
Etikalia, inmobiliaria ética  
Etxalde  
Etxezar bioeraikuntza  
Fiare  
Fracking Ez  
Galdakaoko boluntarioak  
Garoñaren aurkako foroak  
Gaztaroa Sartu  
GEZKI  
Gipuzkoa Zero Zabor  
Goienar  
Greenpeace  
Gure kabuz ala hil! Proiektua  
Hasi Berriro  
Hazien sarea  
Hegoa

Herri Unibertsitateak ekimena  
Hik Hasi  
IBILTARI  
ICEA  
Ikasle Abertzaleak  
Ikastolen Elkartea  
Iparlore  
Iraun Permakultura Elkartea  
Iraunkor  
Joxemi Zumalabe Fundazioa  
Kaleko Elkartasun eta Kultur  
Elkartea  
Keima Animazioa  
Kontseilua  
KOOP 57  
Kutxabank publikoa  
La Gallina Vasca  
LAB  
Lakari Koop.Elk.Txikia  
Larrabetzuko eskolako jantokia  
Larrabetzuko konposta  
Lekukohartu  
Lur Denok  
Lurrekin  
Manu Robles Arangiz Fundazioa  
Maskilu kontserbak  
Mugarik Gabe  
Mugarik gabeko al baitariak  
Mugitu Mugimendua  
Mujeres del Mundo  
Observatorio de Multinacionales  
Oikocredit  
OinHerri  
OlatuKoop Ekonomia Sozial eta  
Eraldatzailea Sustatzeko  
Elkartea  
Ondarroako eskola  
Ondarroako ikastola  
Ondarruko Ituna  
Orioko Curriculum Sortzen  
taldea  
Ortuondo gaztetxea  
Ortutik ahora  
Parte Hartuz  
Pedro Ugarte (Desazkundera)  
Peñascal, S.Coop.  
REAS Euskadi

REAS Euskadi / Gizatea  
Reciclanet  
Sakanako Garapen Agentzia  
SETEM  
Setem Hego Haizea  
Sin plástico  
Sokaire  
Som Energia  
Sortzen  
STEILAS  
Suma con Causa Auzolana  
Sumendi  
Sustrai eraikuntza  
Taller de Transición Energética  
en EH  
Taller Y-Poranga  
Trantsizio Energetikoa  
Truke Berrerabilpen Elkartea  
UK natura  
UPV/EHU Gasteiz  
Urduñako Udal Sukaldearen  
Kolektiboa  
Urduñederra tokiko garapen  
agentzia  
Uribe Butroe Bizirik  
Urtxintxa  
Uztarri Kooperatiba  
VSF Herrien Bidezko Elikadura  
Ximaurpila elkartea  
Zurtek